


ttüpi-ttapa

1995eko uztailak 27 • 163. zenbakia

Kirolak

**Txaruta Herriarteko
Pilota
Txapelketaren
finalean gelditu zen**




**BELATEKO TUNELAK
NAFARROAKO LUZEENAK**



GANI

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

MARIN ERREKAKO
ZUBIBIDEAREN PILAREAK



ALMANDOZKO
TUNELA


**Zubibide altuak eta
tunel luzeak**

Nafarroako luzeenak izanen dira Belaten egiten ari dituzten tunelak. Zubibideak ere ikusgarriak dira.

BELATEKO MALDAREN ITXURALDAKETA

Belateko errepide berriaren obrak epearen barnean ari dira egiten, eta Nafarroako Gobernuak agintariak diotenaren arabera, zenbait zati hasieran pentsatua baino aurreratuagoak daude.

Halaxe gertatzen da, errate baterako, Zozaia eta Almandoz arteko zatiarekin. Iturri ofizialetatik adierazia dutenez, udazkenerako akitua egonen da zati hau. Horrela, saihestu egingen da, behingoz, azken urteotan hainbertze istripu eta heriotz eragin duen Marin erreka bihurgunea.



belateko obra 5 zati banatuta dago, eta hoietakoa bat, Zozaia eta Almandoz arteko zatia, alegia, urriaren trafikora idekitzeko moduan egonen dela hitzeman zuten Nafarroako Gobernuak agintariak obreta-

ra egindako bisitan. Tarteko zatiak ere, bi tunelak eta Arraizko Bentatik Iruñaldeko tunel-sarrera bitartean dagoena, martxa politean ari dira egiten. Izan ere, markatutako epeak betetzen baldin badira, obra osoa 1996ko abendurako bukatua egoteko esperantza agertu zuten. Gogoratu behar da, irailean beteko dela urte bat Almandozko tunela zultzen hasi zirenetik, eta datorren urtean sasoi honetarako bukatua egotea aurrikusia dago.

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK:
VICENTE SANZBERRO

7.750 MILA MILIOI PEZETA BAINO GEHIAGO

Oso tara, obra honek 7.750 milioi pezetako (313 milioi libera) kostea gaudituko du. Halaxe adierazi zuen Lopez Borderias, Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariak obretara egindako bisitaldian. «Kostearen igoera ez da %10era ailegatuko, eta hori, gisa honetako obra publiko batean, onargarria da eta legeak berak ere, aurrikusi egiten du».

Momentu hauetan, bertzalde, Belateko tunela baretik ormigoizko kapa batez indartzea komenigarria ote den aztertzen ari dira. Horrela, saihestu egingen litzateke tunelaren barrenera gelditu gabe erortzen ari den ur jarria.

Moldaketa honek 165 milioi pezetatan garestituko luke obraren hasierako kostea, bainan-hala ere, horrela egingez gero, urtero 10 milioi pezeta inguruko mantenu gastua aurreztuko zen. Gauzak horrela, «ikusi egin behar da urtero 10 milioi horiek aurrezteak nahiko arrazoi ote diren orain 165 milioi gastatzeko» adierazi zuen Lopez Borderias. «Teknikoki justifikagarria dela erraten badidate, nere aldetik, soluzio horren alde jokatu nuke».


Dena dela, aipatutakoa ez da izan Belate eta Almandozko tunelek izanen duten garestitze bakarra. Mendiola auzorako bidesarrerak eta hasierako trazatuetan egindako aldaketek batetik, eta bertetik, lurrazpian topatu dituzten bertzelako ustegabeek, obra garestitzea ekarriko dute, zenbatean zehaztea zaila bada ere.

7.750 mila milioi pezeta hoietatik zati handi bat Europako Ekonomi Elkarteko fondoetatik finantziatua izan da; aurten bertan 3.000 milioi pezeta baino gehixeago, eta datorren urtean ere, bertze 2.000 milioi pezeta baino gehiago eskuratzea espero dute nafar agintariek. ■

Belateko errepede berria

Obra haundi baten xehetasunak

ARGAZKI ERREPORTAIA:
VICENTE SANZBERRO



Errepide berriaren 5 zatiak

ARRAIZKO BENTAK TUNELAREN SARRERA

Luzetasuna: 5.700 m.
Obraren egilea: Padenasa
Adjudikazio data: 1994ko uztaila
Adjudikazio kostea: 389,9 milioi pezeta.


BELATEKO TUNELA

Luzetasuna: 4.000 m. (tunelak 2.889 m)
Malda: %2koa
Kotarik altuena: 705,8 metroan, errepede lepoan duenetik 141 metr
Obraren egileak: UTE (Auxini, Lain, Posusa)




Mugairitik Iruñera joateko 20 minutu guttiago beharko du errepede berria zabaltzen denean eta Belateko lepoa 847 metroko alturan pasatzen beharrean, tunela idekitzean, 705,8 metro izanen dira pasatu beharreko kotarik altuena. Denetara, 17,5 kilometroko errepede egingen da.

Zozia eta Almandozko arteko zatia izanen da bukatuko duten lehe



BERREOTAKO BIDEGURUTZETIK ZOZIA BITARTEKO OBRA



MARIN ERREKAKO
ZUBIBIDEA



ZUBIBIDEAK
BERROETA ALDETIK
IKUSIAK

Bi zubibide

Marin erreka Zubibidea

Denetara 7 pilare ditu; ttikienak 20,1 metroko altuera izanen du eta hiruk 50 metroko altuera gainditzen dute. Zubibide honek 350 metroko luzetasuna du.

Berroetako bidegurutzeko Zubibidea

128 metroko luzetasuna duen zubibide honek bi pilare ditu; beraz, Marin erreka bano ttikiagoa da.

Bi tunel



Belateko Tunela

Momentuz, Nafarroan dagoen tunelik luzeena izanen da, 2.889 metrorekin.

Momentu hauetan ia den-dena zulatua dago.

Almandozko tunela

1.193 metroko luzetasuna. Obrak 1994ko irailean hasi ziren, eta hasiera batean, 1996ko ekainerako bukatzea aurrikusia zegoen.



ALMANDOZKO
SAIHESBIDEAREN
IKUSPEGIA

Istripuak

Obrak hasi zirenetik, istripuak ere gertatu dira Belateko obretan.

Ekaina hasieran, zubi berrietan paratzen dituzten abe haundi hoietako bat garraiatzen ari zirela, ezbeharrak gertatu zen errepideko bihurgune batean, eta horren ondorioz, bide bazterra traktore batekin garbitzen ari zen langile bat hilik suertatu zen abeak azpian harturik. Gainera argazkian ageri da istripua izan zueneko traktorea.

Etxe bat erori

Azaroaren 30ean Almandozko Eskasenea baserria erori egin zen. Etxe azpiko lur mugimenduek eragin zuten etxearen erortzea.



ALMANDOZKO
ESKASENEA BASERRIA



ALMANDOZKO TUNELA

Luzetasuna: 2.840 m (tunelak 1.193 m.)
Obraren egileak: UTE (Obras Subterranas S.A. eta Alvargonzalez Contratas)
Adjudikazio kostea: 1.929 milioi pezeta.

ALMANDOZKO SAIHESBIDEA

Luzetasuna: 2.260 m.
Obraren egilea: Mariezkurrena S.L.
Adjudikazio kostea: 1.309,6 milioi pezeta.
Bertze obrarik: Bi zubibide, Marin erreka eta Berroetakoa.

ZOZAIALDEA

Luzetasuna: 2.229 m.
Obraren egileak: UTE (Urbanizaciones Iruña, Alaiz, Biurrun, Azpiroz-Saralegi eta Padenasa).

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.100 ALE

ARGITARATZAILEA: TTUPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
retxea, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Aizabar, Ainhoa Mutuberria, Iban
Gasi, Txema Aldabe, Pello
Apeztegia, Txema Urroz, Patxi
Aizandorena, Daniel Martirena,
Anebel Maia, Josune Etxebeste,
Aitor Mendiburu, Joseba
Aizabarade, Alizia Olaizola, Margari-
te Aizabarade, Koro Irazoki, Mixel
Aizabarade, Jacqueline, Elixabet
Aizabarade, Garbiñe Maiz, Oskar
Aizabarade, Alberto Sansiñena,
Aitor Apeztegia, Aitor Arozena,
Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**
Aitor Apeztegia, Patxi Lasa, Mikel
Aizabarade, Joxe Javier Etxe-
barria, Arantxa Zabala...

primategia: Gertu (Oñati).
ttipi-ttapa ez du bere gain har-
ten derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
tzatuz.

Arakunde Laguntzaileak: Bera,
Aizabarade, Goizueta, Areso, Baztan,
Aizabarade, Zugarramurdi eta
Aizabarade udalak, Bortzirietako
Aizabarade Mankomunitatea,
Aizabarade Zerbiztu Mankomu-
nitateak...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

EGA azterketak direla eta...

Ahozko azterketak zama haundiagoa behar luke



Bittorio LIZARRAGA
IKAn irakasle. Leizoa

Ez da bada Eus-
kara Gaitasun
Agiria EGA?

Hortaz, begi bistakoa da eus-
karaz taiuz mintzatu eta idaz-
ten nola leitzen dakien edo-
zeinek beharko lukeela izan
zorioneko tituluaren jabe.
Baina, horratx non dagoen bu-
ruhauste honen kokka: non-
bait, bakarren bat ohartu da
eskari horiek guziak beteta ere
EGA ez dela aski tituluaren ja-
bepari ematen zaizkion ahalbi-
de guziak asetzeko. Aski ote
da, bada, EGA irakaskuntza-
ko edozein diziplinatan ari-
tzeko? Eta behar horietara mol-
datuz gero, ez al da gehiegix-
ko bestelako eginkizunetara-
ko edo behar duenarentzat?
Azterketa idatzizkotik abia-
tzen da eta mintzozkoa ere ha-
ren legetara egiten da. Ez naiz
ni horren aldeko. Uste dut mint-
zozkoak zama haundiagoa
behar lukeela. Euskaldunak
behar ditugu aurreneko, eus-
karaz suelto mintzatuko dire-
nak, eta ez artikulu laburpen-
gile trebeak, ezta edozein gai-
ren gainean sormen ahal era-
kutsiko dutenak ere. EGaren
inguruan gertatzen dena eus-
kararen egoeraren ispilua da.

Euskara pairatzen ari den gaitzaren sintoma bat ez al da izanena?



J. Emilio TXOPERENA
Hizkuntz Eskolakoak

Iritzia emateko
trantzean para-
tu nautenean,

herri bateko kioskoan Mihura
bat narrika dezan bota duten
zezenlariaren irudia etorri zait
burura; honenbertzez, ura ni-
re errotara ekartzea erabaki
dut eta, aspalditik hainbertze
esames sortu dituen EGA/5.
maila euskara azterketari ez-
kerrez natural pare bat emate-
a. Zer nahi du aztertzailerak?
Titulua lortzen duen pertsona
euskalduna izateaz gain eus-
karak erdaren eraginez jasaten
ari den higaduraren aurka-
kako eragile ere izango dela
edo guttienez ez bizio hedat-
zaile. Zernahi du aztergaiak?
Titulua; baina, zertarako?
Euskalduna dela frogatzeko?
ala, lana eskatzerakoan auka-
ra zabalagoa izateko? Euskal-
duntasuna egunero frogatzen
da; izan dira, badira eta izan-
en dira titulua ez duten eus-
kaldun garbiak eta paper hori
deustarako behar ez dutenak.
Behar duenak gaitasun
osoa agertu beharko du. Fro-
gak gainditzen dutenen por-
tzentai exkaxa ez al da euska-
ra pairatzen ari den gaitzaren
sintoma bat bertzerik izanena?

Azterketa zailagoa edo gure euskara pobreako?



Patxi INIGO
Hizkuntz Eskolakoak

Begibistakoa
da jasaten ari
garen erdarare-
kiko menpekotasuna izuga-
rria dela, eta ondorioz, bate-
tik, hutsez eta erdarakadaz
josia dabilkigula euskara eta
bertzetik, esapiderik eta ga-
tzik gabekoa. Nik nire gura-
soek baino aunitzez guttiago
hitz egin dut euskaraz eta ni-
re ilobek nik baino guttiago.

Eta, jakina, hori egiten du-
gun euskararen nabaritutako
zaigu. Nire amak, errate ba-
terako, kontu-kontari ari de-
nean, ez du inoiz erranen:
«eta gero joaten da...», eta
ekartzen du...», eta ematen
dio...». Nik, berriz, maiz
erraten ditut horrelakoak.
Edota nik, orainoz bederen,
ez dut erranen: «dira bortz
gizon» edo «bada jendea bizi
dela lan egiteko». Nire ilo-
bek, ordea, frangotan erraten
dituzte horrelakoak. Eta egia
da orain dela urte batzuk herri
erdaldunetako neska-mu-
tielei entzuten genizkiela ho-
rrelako hutsak azterketa egi-
tera joaten zirenean, baina
gaur egun gero eta maizago
entzuten dizkiegu herri eus-
kaldunetakoei ere.



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA


**Kirolaririk
gustokoena**
Erika LAGOMA

Doinua: Aita izena

Edozein kirol ikusitzea neretzat ez da gazia baino oraingoz futbola behintzat hautatzen nago hasia jokalarien lista osoa denez sobera luzia hauetako bat aukeratzea izanen da nahasia futbolari guziak baitute bere gauza berezia.

Beti aipatzen ibiltzen gara kategoria gorena baina hor daude beste asko re sortuaz itxaropena nola kirola beti izan den askorentzat zoramena egin didazun galderari buruz hau da pentsatzen dutena gogo guztia jartzen duena da kirolari onena.

**PNVko egoitzen
kontrako
atentatuak**

EAJ-PNVk Iruñean duen egoitza eta Lesakako Herriko Etxea erretzen saiatu ondotik, Etxarri-Aranatzeko batzokiaren atea ere erre egin zuten uztailearen 6an goizaldeko 3,30ak aldera, ezbehar pertsonalik gertatu gabe.

PNVren Napar Buru Batzarrak gogorki gaitzesi nahi ditu atentatu hauek, argi baitago Euskal Herri mailako kanpaina baten barnean sartuak daudela; Pasaia, Errenteria, Oiarzun...

Gertakizun hauekin, lehergailu mehatxua eta guzi, Lesakako Sanferminak bezalako agerpen publikoak zapuztu nahi izan zituzten, nahiz eta azkenean ez duten horrelakorik lortu.

Modu horretan, kontzientziak ezin direnez asaltatu, karrikak hartu nahi izan dituzte.

Hala eta guziz, PNVk normaltasunera eta herritarren arteko elkarbizitzarako deia zabaldu nahi du, nahiz eta sorgin-ikasle hauen frustraziorako, apenas lortu duten normaltasuna eta elkarbizitza asaldatzea.

IRAKURLEAK MINTZO

Bertze frustrazio bat gehiago beraientzat.

EAJ-PNVREN PRENTSA BULEGOA


**Aresoko kulturari
trabak**

Guraso gisa eta Kultur Etxe baterako proiektu baten dinamizatzaile gisa (esan dezagun bidenabar, gaian adituak direnek oso positiboki baloratutako proiektua dela), tamalgarri gertatu zaigu azken udal batzarrean proiektu hori interesik ezaren eta ezjakintasunaren aurka nola lehertu den ikus-tea. Tamalgarria izan da gure seme-alabez dagoen eritzia entzun behar izatea: drogazale potentzialak eta ahal bezain laster neurria galdu eta sekulakoak egiten dituztenak.

Seriotasunez aurkeztu dena seriotasunez aztertu behar dela uste dugu, are gehiago lanean seriotasunez jardun duen taldea baldin bada. Ezinda liburutegia drogarekin kontrajarri, edota langela 'desmadrerekin.

Ez dugu eskatzen gaur egun posible izanen den deus ere. Lokala badago, gazte eta sustatzaileen al-

detik lan egiteko gogoia ere bai, baina hasteko Udaleko talde nagusiaren borondatea eta jarrera ona falta da. Nolanahi ere, bere ezezkoak ez gintuzkeen harritu behar, Guraso Elkartearekin ohizko jarrera izan baita — Hasteko, Ez—. Guk ere herriarentzat lan egiten dugula ahaztu dute, eskatzen duguna herriarena da eta bere erabilpena denontzako onura da. Bide zuzenean goazela eta denborak arrazoia emanen digula us-te dugu, beraz, liburutegi txiki bat, ordenagailu gela bat, ekintzetarako gela bat eta abar sortzeko asmoari eutsiko diogu, gure gazteek behar dutelako; eta baliabide hauen bitartez, berriek, Aresoko etorkizuna izanen diren horiek, ez dezetela guk entzun duguna bakarrik izan, hau da: argudiatu gabeko argudioak eta arrazoitu gabeko arrazoiak, irakurri aurretik proiektu bati ezetza emateko.

GENO TELLETXEA

TRINIDAK MIRANDA

(GURASO ELKARTEKO

LEHENDAKARIA ETA

GURASO ELKARTEKO ORDEZKARIA

ESKOLA KONTSEILUAN)



ONGI PASATU HERRIKO BESTETAN

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305


SAROBÉ
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



Diario de Noticias 95-VII-10

«Beran hain ordu tristeak pasatu baditut ere, sentimentu kontraerrankorretatik kanpo dago niretzat. Bera ama bezala da; eta Madrid nere emazte legitimoa bezala,

amitz maite duzuna bainan noizean behin aspertu ere egiten zaituena».

Julio Caro Baroja
Antropologoa
Diario de Noticias 95-VII-10

◆ **Gehien gustatzen zaizkizun jan edariak?**

- ❖ Spaghetiak eta Txurrisklas-a
- ◆ **Lana goizez edo gabez?**
- ❖ Goizez.
- ◆ **Lana fabrikari edo txaranga?**
- ❖ Bizitzeko fabrikakoa, dibertitzeko txaranga.
- ◆ **Bestarik gustokoenak?**
- ❖ Alaitua egonez gero, edozein.
- ◆ **Zer egiten duzu asti librean?**
- ❖ Korrika, hobby dibertigarriak entsaiatu.
- ◆ **Izar edo Zizkuitz txaranga?**
- ❖ Bietan ongi, guziak elkarrekin hobe.
- ◆ **Banda edo txaranga?**
- ❖ Bakoitza bere neurrian, banda serioagoa da.
- ◆ **Partitura irakurri edo TTPI-TTAPA?**
- ❖ Bakoitza bere momentuan.
- ◆ **Baserriko lanetan laguntzen duzu?**
- ❖ Baratzea dugu bakarrik, eta guti. Gurasoak aritzen dira.
- ◆ **Norekin moldatzen zara hobe, nexka gaxteekin edo emakume helduekin?**
- ❖ Emakume helduak zirikatzeke egokiagoak dira.
- ◆ **Berako udal berriarekin gustora?**
- ❖ Bai, baina pertsona bat falta da.



Joxelu LOIARTE
Beratarra. Saverako langilea eta saxofoi jolea

ONGI PASATU HERRIKO BESTETAN

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA



Zalain Auzoa
☎ 63 09 67
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63


DROGUERIA MOLINERO



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIK •
Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak
Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

AYLA ARGAZKINTZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
Legia karrika n° 4
BERA ☎ 630597



Omenaldia eta dantza irailako lehen asteburuan

Jon Irazoki omenduko da larunbatean eta Berako I. Dantzari Txiki Eguna igandean

KRISTINA BOAN

Irailako lehenengo asteburuan, 2an eta 3an, ospakizun mordoxka izanen dira. Larunbatean, arratsaldeko 4,15etan Jon Irazoki gaztearen oroimenez, Gure Txokoa, Beti Gazte eta Oiartzungo futbol taldeen arteko partidua izanen da. Gainera, omenaldia eskainiko zaio Gure Txokoa futbol taldeko jokalaria zenari.

Irailaren 3an, berriz, Berako I. Dantzari Txiki Eguna ospatuko da. Berrehun bat dantzari txiki banatuko dira Berako karrika guzietan barna eta Altzaten bilduko dira eguerdian elkarrekin aritzeko. Ospakizun hau dela eta lagundu nahi duen guziori deialdia luzatzen diote Gure Txokoa dantza taldeko antolatzailleek. Arduradunek lamotenean izanen dute bazkaria eta dantzari sail hori Berako etxeetan hartuko dira.



Alkaigako bestak umore onean ospatu ziren. Bazkarian auzotar ugari elkartu zen. Joan den urtean burutu zen txirindula proba, ordea, ez zen egin aurtengoan.

Besta garaian sartuak gaude

Alkaigakoak ospatu berriak dira, San Esteban egun guttiren buruan ospatuko ditugu (herriko besta nagusien berri zehatza erdialdeko gehigarrian duzue) eta hurrengoak, berriz, abuztuko azken asteburuan, 26 eta 27an, Agerran ospatu-

ko dira. Larunbatean (26), arratsaldean altxaferoa bota ondotik, haur jokoak izanen dira. Ilunabarrean dantzak eta gau partean musika doinuak nagusituko dira auzoan.

Igandean berriz, goiz goizetik laisterka aritzeko aukera izanen

da crossean. Eguerdian, urteroko aizkora apostua burutuko da. Ondoren, zikiro-jatea, toka txapelketa, poteoa eta arratsean, musikarekin batera dantza lehiaketa izanen da. Su artifizialak ikusgai izanen dira, beste akaberak emanez.

ttipi-flash

Oihan enkantea

Udalak enkantean salgai jarriko ditu oihan aprobetxamendu hauek: 900 haritz amerikar, bertako 88 haritz, 508, 496 eta 22 m³ zura egiten dutenak. Hasierako prezioa: 3.036.400 pta. 714 pinu, 438 m³ zura egiten dutenak. Hasierako prezioa: 2.014.800. 1.296 haritz, 197 m³ zura egiten dutenak. Hasierako prezioa: 610.700 pta. Proposamenak udaleko idazkaritzan aurkeztuko dira.

Irastorza anai-arrebak

Amaia eta Josebak, aurten ere Nafarroako trikitixa txapelketa parte hartu dute. Finalerdian sailkatzea lortu zuten eta bertan jotako 'Trikitixa', 'Porru-salda', 'Fandango' eta 'Arin-arin' arekin seigarren postua lortu zuten. Hurrengoan ere parte hartzeko asmoa dute.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA


KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

LOZOTEGI-JAIONE

Itzea 3 • 630786 • BERA


• Eratzunak, belarritakoak, erlojuak...
• Kirol trofeoak
• Omenaldi plakak
Alizantzak: Bi erosteagatik opari bat
KANTTONBERRI, 8 • TEL.: 630751 • BERA
MERKATARIK • TEL.: 451519 • DONEZTEBE

Ongi pasa herriko bestak !!!
ALICIA
Janaridenda

Foruen Plaza 6 • ☎ 630799 • BERA

Lesaka

Adintuendako bi bidai antolatu dira asteburu honetarako

Ortziralean San Fermin jubilatuko elkarteak Urbasara joanen dira eta larunbatean, bertze bidaia Erribera aldera aterako da

AITOR AROZENA

Baten faltan bi bidai izanen dira asteburu honetan, adineko jendeari zuzenduak. Ortziralean, uztailearen 28an, San Fermin Jubilatuko elkarteak Urbasa aldera joanen dira. Goizeko 7,30etan abiatuko dira plazatik autobusean eta Iratxan bazkalduko dute. Itzulerara ordua han bertan erabakiko dute. Bidai osoaren prezioa 2.100 pezetakoa da.

Bertze bidaia larunbatean egingen da, Erribera inguruetara. Goizeko 7,30etan abiatuko eta Faltzesen Agirre eta Armendariz bodegak bisitatuko dituzte. 'D. Marco' kontserba enpresa ikusi eta Miranda de Arga, Lerin, Berbinzana eta Larragan barna ibiliko dira. Bazkaria Lizarran egingen dute eta arratsaldean herria bisitatzeko probetuko dute. Bidai honetarako txartelak 'Marixus' dendan eskura daitezke.



San Fermin jubilatuko elkarteak Urbasa aldera joateko aukera izanen dute ortziralean

Arg.: Aitor

Jon Arozena kartzelara, 'Txapas' libre

Uztailearen 11n, bere etxean atxilotu zuen guardia zibilak Jon Arozena intsumisioa. Bortz bat orduz Berako kuartelean egon ondok, Iruñeko kartzelara eraman zuten. Soldaduskaren aitzinean intsumisioaren bidea aukeratu duten lesakari gehiago badaude ere, Jon izan da kar-

tzela probatu duen lehena. Aste pare batez Iruñean egon ondok, dagoeneko hirugarren gradua eskuratu du —lan egunez lotara bakarrik joan behar du eta asteburuak libre eta Martuteneko kartzelara trasladio ere eskatua du.

Atxiloketa egunean, asanbladaren on-

dotik, manifestazioa izan zen herriko karraketan barna.

Bertzalde, Doneztebeko bestetako istiluetan ustez parte hartzeagatik atxilotu zuten Carlos Imanol Borda 'Txapas' aske utzi zuten uztailearen 13an, inolako kargurik gabe eta fiantza ordaindu gabe.

ttipi-flash

Banartako bestak

Igande honetan burutu da Banartako besta. Bazkaria, Katzapegi eta Nabazko auzotarrerekin batera, eguna erromeri giroan pasatu nahi zuten bertze herritarrek ere hurbildu ziren. Bazkaldoko giroan, musikak ez zuen hutsik egin.

Beti Gazte martxan

Beti Gazte elkarteak futbol talde nagusia, datorren denboraldia prestatzen hasi da dagoeneko. Erregionaleko lehen mailan jokatu beharko du aurten, 16 ekipoko talde batean. Entrenatzaile lanean Koldo Erkiziak segituko du eta ez da aldaketa haundirik izanen taldean.

LESACA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESACA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27
LESACA

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47
LESACA
Lagunekin elkartzeko toki egokia

ALBAITARITZA KLINIKA
ORDUTEGIA
9,30etatik 1etara eta 5etatik 8etara
Larunbatean 9,30etatik 1etara
Albistur 51, ☎ 627660
LESACA



Ameriketara joan eta han herritarrekin topo

Hamar etxalartar elkartu ziren bertan

PELLO ETA ALBERTO

Arkupeak elkartearekin hiru aste pasatu zituzten Ameriketara Etxemaiteako Jabier Indaburu eta Teresa Irigoienek. Egun ederrak izan ziren, batez ere Ameriketara herritar gehiago topatu zituztelako, argazkian ageri diren Jose Sansiñena (Zamatelukoa), Miguel Arburua (Iturrikobordakoa), Teresita Sanzberro eta Presentación Arburua (Topalnekobehokobordakoa), Fermin Zubieta (Armitxekoa), Juan Jose Mitxeltorena (Gaspalekobordakoa) eta Francisco Berrueta (Marimigelenekoa).

Jabierren erranetan, inpresiorik haundiena, han bizi diren herritarrek eta baita bertze



Etxalartar kuadrila polita elkartu zen Estatu Batuetan

euskaldunek egin zieten harrera izan zen. *"Ikustekoa nola maite duten eta nola gordetzen duten euskara eta hemengo kultura, hemengo xokoetako berriez duten jakinahia"*.

❖ **Unai Otazo** etxalartarrak errealeko kade-te mailan jokatu du datorren denboraldian.

❖ **Adrian Labadiere**n eskulturak lehen saria irabazi du Urruñako Udaberri erakusketan.

Elkarriketa

Papitoneako Irati eta Garazi igerilekuetako langileak dira aurten.

• Ze jende klase dabil igerilekuetan?

Asteburuetan kanpotar aunitz hurbiltzen da, bertzelako egunetan herritarrek, gehienbat gazteak.

• Lanaren alde onak eta txarrak?

Eguraldia ona denean eguzkipean eta bainatzen egon gaitzke. Goibel denean, aspertzen gara.

• Jendearekiko tratua erraza al da?

Normalean ongi moldatzen gara, nahiz eta arauak direla eta arazo batzuk izan ditugun, gehienbat kanpotarrekin. Badira zenbait arau zentzugabeak (bela-rean egoteko kamiseta kentzea) eta bertze batzuk beharrezkoak.



« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



bitxikeriak • opariak • eskulangintza



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

Igantzi

Hurrengo asteetan hasiko dira mendi komunalak mugarritzen

Heldu den hilabetean irekiko omen dute Bentako zubiko pasabidea

OSKAR TXOPERENA

Hasiak dira udal langileak mendian paratu beharreko mugarririk prestatzen. Ormigoizkoak izanen dira eta mendi komunal guzietan paratuko dituzte mugak ongi ikus daitezzen.


Eskolako atarea garbi

Azken hiruzpalau urteotan paratua egon ondotik, kendu egin dute eskola atarea estaltzeko paratua zegoen burnizko armazoaia. Ez zaio, egia erran, etekin haundirik atera, hagit guttitan erabili baita urtean zehar egiten duen trabarentzako.

Etxarteko

Juanito hil da

Urtebete Hendaian bere senideekin bizi-



Bere martxa daramate Berrizaungo zubia moldatzeko obrak. Oztopo franko sortzen dutenez, inoiz ez zaigu irudituko nahiko azkar doazela, baina langileak erran digutenez, Amabirgin besta ingururako pasabidea irekitzeko asmoa dute. Dena den, urria arteko baimena dute obra guzia bukatzeko, bidenabar ongi etorriko da aste tartean txirindularientzat trenbideak duen arriskua aipatzea. Zubia moldatu bitartean aunitzez hobea bertze nonbait ibiltzea

Argazkia: OSKAR

tzen pasatu ondotik, hil egin zen joan den astean Juanito Etxar-

tekoa. Hainbertze urtez herriko abesbatzan kantatzen egon zena-

ri, espero zitekeen bezala, meza berezia eskeini zioten Igantziko

kantariak. Goian bego.

Uda osorako 270 abono igerilekuan

270 lagunek hartu dute orain arte uda guzian igerilekuan sartzeko sarrera edo abonoa. Egia erran, eguraldi ezin hobekak dira orain artekoak urpean egoteko, beroegiak beharbada.

Herriko bestak prestatzen ari dira

Aitzinera doazi herriko bestak prestatzeko bilerak. Guk dakigunez, joan zen ortzira leian izan zen azkena. Bi hilabete bertzerik gelditzen ez direnez, zerbaitetan lagundu nahi dutenek justuko denbora dute ipurdia mugitzeko.

**KOXKILA
OSTATUA**



Zarandia, 4 - LESAKA



© 635290
ETXALAR

**HERRIKO
OSTATUA**

Jatetxea

*Lagun artean
goxo-goxo egoteko
leku egokia*

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hobereena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - © 637264



Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa**k eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

© 63 11 88

Arantza

Aurtengo bestak larunbata arte luzatu nahi dituzte gazteek

Berez, astelehenean hasi eta ortziralean bukatuko liratekeen, baina gazteek kontzertua antolatu nahi dute

GARBIÑE ETA ELIXABET

Arantzako Amabirjin bestak abuztuaren 14tik 18ra izanen dira aurtun, beraz, astelehenean hasi eta ortziralean bukatuz. Gazteek, ordea, larunbatean ere zerbait antolatzea nahi dute eta horretarako gazte guztien kolaborazioa eskatzen da. Egun horretan kontzertu bat antolatzeko asmoa dute eta horretarako bakoitzak 1.000 pezeta-ko laguntza ematea komenigarria litzateke. Norberaren dirulaguntza herriko edozein ostaturan utz daiteke. Gazteen ustez, "jakina da larunbatetan kanpoko jende gehiago mugitzen dela eta



Bestak larunbata arte luzatzeko intentzioa azaldu dute herriko gazteek

Artxiboa

herriak bixitasun gehiago hartukoluke".

Bi milioi oihan enkantean

Herriak bi egur lote oihan enkantean sal-

du ditu. Haritz amerikar lotea 1.150.000 pezetatatan saldu du eta pinu lotea 900.000 pezetatatan. Guztira 2.050.000 pezeta es-

kuratu ditu Herriko Etxeak.

Zinegotzi aldaketa

PNVko zerrendan zegoen Jose Gabrielelek

dimititu egin du. Bere ordean, zerrendan segidan zetorren Juan Francisco Mazizior izanen da zinegotzi he-mendik aitzinera.

ttipi-ttapa

Urte oso batez
(24 aldizkari)
Ameriketara
bidaltzeak 8.000
Pta. balio du.

Guk bidaliz, merkeago ateratzen da

Interesatua egonez gero deitu 63 | 188ra

Malerreka

Zubietako pilota txapelketa hasi berria da

Festetan jokatuko dira finalak

AINHOA MUTUBERRIA

Igande arratsaldeak normalean aspergarri xamarrek izaten badira ere, aste hauetan ongi pasatu ahal izanen dugu, Zubietako pilota txapelketa hasi berria baita. Ondoko argazkian ageri denez, historia luzea du txapelketa honek. Igandero igandero pilotan aritu ondotik, dagoneko egitaraua zehaztua duten festetan jokatuko dira finalak.

Bestalde, aipagarria da egun hauetan izan dugun bero ikaragarria, itotzeko modukoa izan baita. Belarretara joanez gero egosia bukatzen zenuen, bainan, halere, patata laisterrak onak eta neurrian aterara dira.



Zubietako pilota txapelketak edizio berri bat burutuko du aurten

Argazkia: Iñaki Etxeberria

Euskara ikasten Malerrekan

Uda garaia aproposa izaten da kanpotarrak Malerreka aldera etortzeko eta aunitz euskara ikastera etortzen dira. Iturenen uztaila hasieran etorri ziren AEKko barne-tegikoak eta hasiera batean, dutxeekin arazoren bat izan bazuten ere, hor dabilta. Zubietara ailegatu dira euskaldunberriak, bi ezik denak berriak. Doneztebeko euskaltegia eta Mendaur aterpetxea ere gainezka ageri dira, euskara ikasi eta ingurua ezagutu eta ongi pasatzera etorritako jendeaz bete.

138 pilotarik parte hartu dute 'Josetxo Ezkurra' memorialean

138 pilotarik parte hartu dute aurten Donezteben jokatuak 'Josetxo Ezkurra' memorialean. Txaruta pilota elkarteak antolatutako memorial honen arrakasta handia

izan du. 'Ekainaren 24an jokatu ziren finalak Donezteben (berri zehatzagoa, kirol orrialdetan) eta sari bakanetan Koteto Ezkurra (erremontelaria eta Josetxo Ezkurra zena-

ren semea), Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea, Alejandro Maylin zinegotzia eta Jabier Almandoz Nafarroako Aurrezki Kutxako zuzendaria izan ziren. Bertzalde,

laguntzaileak CAN, Doneztebeko udala eta Luis Martin harategia izan dira. Txarutako pilotariak, Nafarroako Herriarteko txapelketa jokatu dute berriki Lizarraren kontra.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



Moble berriak erakusketan



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • 45 02 58 • DONEZTEBE

Malerreka

Doneztebeko azken udal batzarrean ardurak banatu ziren

Bestetako istiluen inguruan, erreakzioak plazaratu dituzte Herriko Etxeko zenbait zinegotzik

TXEMA ETA KARMELO

Herriko Etxeko batzardeekin batera udalez kanpoko erakunde-atarako ordezkariak erabaki ziren batzarrean. Honela, Doneztebeko Industri Mankomunitateko ordezkaria alkatea izanen da; eskolako M^a Jesus Perurena (EA); Malerrekako Zabor Mankomunitatekoak alkatea eta Javier Elizalde (EA) eta Tomas Ezkurra (Union Doneztebarra); Bidasoa-Berroarango Mendiak, Miguel Irigoien (EA); Cederna-Garalur, alkatea; Bertizko Partzuergoa, M^a Jesus Ganboa (EA); udal musika eskolako patronatoa, alkatea, M^a Jesus Perurena, Tomas Ezkurra eta Alfredo Zugarramurdi; Osasun Zentroa, Tomas Ezkurra (UD).

Alkateordea Javier Elizalde (EA) izane da, bigarrena Tomas Ezkurra (UD) eta hirugarrena, Perurena (EA) izanen dira.



Uztailaren 16an inauguratu zuten Sunbillako Aritzigain kanpalekua. 19.800 m² ditu, 100 partzela (bakoitzak 65tik 85ra m² dituelarik, camping denda eta karabanarentzat eta 400 pertsonentzat lekua. Horretaz gain, bezeroek iturriak, botikina, labandaria, fregaderoak, dutxak, janari eta oroigarrien denda, ostatua eta jatetxea izanen dute. Bertako nagusiak, Ricardo eta Jexux M^a Arretxea dira, Zubizargaina baserrikoak.

Bestetako istiluen inguruan erreakzioak plazaratu dira

EAKo M^a Jesus Perurenak batzarrean erran zuenez, istiluen ondotik egindako komunikatuan zenbait aldaketa izan ziren. Perurenak segurtasun indarrek izandako jarre-

ragatik –irainak, mehatxuak, kolpeak...– gogorki protestatu du. Bere ustez, “*ekintza bandalikoak egiten zituaztenek, bizilagunen osotasun fisikoa arriskutan jartzen baldin*

bazuten, bertze horrenbertze erran dezakeguke-pote eta gomazko pilotei buruz”. Adierazpen hauei, Alfredo Zugarramurdi zinegotziak erantzun zien, “*besten aintzine-*

tik, bestetan eta besten ondotik Herri Bata-sunak hauetaz egin duen erabileren” salatuz. “*Gas hodia xehetzea ez da bandaliko, kriminala baizik*” dio Zugarramurdik.

ttipi-flash

❖ **Kartoi birziklapena**

Malerrekako zabor mankomunitateak biltzen duen kartoia Doneztebeko merkaturako biltegian jpi-latuko da, segidan birziklatzeko. Honela onartu du udalak.

❖ **Ekaitza ostatuan**

izaten diren soinu-engatik bere arrenkura azaldu dute bizilagunek. Doneztebeko udalak, zuzeneko kontzertuak egitea debekatu du, beharrezko baimenak eskuratu bitartean.

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estruktura eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

Sunbilla

Abuztuak 10, ortzeguna
8etan Altxaferoa. Txaranga herriko karriketan. **9-etan** bustiak eta ardi gisadoa herriko ostatueta. **12etan** dantzaldia JATOR taldearekin.

Abuztuak 11, ortzirala
 'San Tiburtzio eguna'
10etan dianak. **11etan** meza nagusia. **12etan** dantzariak. **6,30etan** dantzariak. **8etan** kantaldia: AMAIA ZUBIRIA bere taldearekin. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia JATOR taldearekin.

Abuztuak 12, larunbata
9,30etan dianak. **10etan** txirrindulariak: 'Bidasoa-Berroaran' itzulia. **12etan** kalejira txarangarekin. **5,30etan** txirrindulari eskolako lasterketa. **7etan** paleta gomazko pilota partiduak: Iribarren eta Latasa, Bidal eta Elizalderen kontra. Pierola eta Txopereña, Maritxalar eta Ibarrenren kontra. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia JATOR taldearekin.

Abuztuak 13, igandea
Haur eta Peñen Eguna
10etan dianak. **11etan** haurren jostetak: Igerilekuetan, water-polo, buze-



oa, haizezko tunela. Karts eta haizezko gazteluak. **12etan** kalejira txarangarekin. **2etan** herriko bazkaria Gindal ibiltokian. **4,30etan** haurrenjostetak igerilekuetan eta karts. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia JATOR taldearekin.

Abuztuak 14, astelehena
10etan dianak. **10,30etan** mustxapelketa. **12etan** kalejira txarangarekin. **4etan** herriko plater tiraketa txapelketa. **7,30etan** berendua Alejo osabaren ostuan: urdai azpikoen jantaria. Eguneroko bezala, arratsaldez eta gauz dantzaldia JATOR taldearekin.

Bestak lehen eta orain.
Goitiko argazkian, Modesto, Martzelino, Inaxio, Genaro, Felix, Pako eta Anttonio elizako pareta gainean. **Behitjan, peñen eguneko argazkia.**
 Argazkiak: INAXIOK utziak

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

GAZMENDI eraikuntzak

- Eraikuntzak orokorrean: publikoak, partikularrak
- Etxe berritzeak
- Nabe industrialak
- Saneamenduak

San Juan Karrika, Gure Borda • SUNBILLA • ☎ 450130

LINDA *estetizista*

- X Depilazio hotza eta beroa
- X Aurpegi garbitzeak
- X Esku eta hanketako azazkalak
- X Erlajatzeko masaiak
- X Aurpegirako tratamenduak
- X Makilaiak
- X Kosmetikoak, eguzkirako kremak eta tratamenduen salmenta

Laister ile-kentze elektrikoa

Etxezuria • SUNBILLA • ☎ 450371

Beintza Labaien


Abuztuak 4, ortzirala Labaien. 8etan altxafe-ruak eta Iturengo txistulariak. 10etan Baztan zopak ostatueta eta dantzaldia Modestorekin.

Abuztuak 5, larunbata Beintza. 10etan kalejira. 1etan aizkora apostua. Dantzaldia Scana-rekin.

Abuztuak 6, igandea Labaien. 10etan kalejira. 12etan meza. 5etan Pista Libre haurrentzat. Dantzaldia Scana-rekin.

Abuztuak 7, astelehena Beintza. 12etan Plater Tiraketa. 6etan haurrentzat Trokolo pailasoak. Dantzaldia Scana-rekin.

Abuztuak 8, asteartea Labaien. 1etan Herri Kirolak. 2etan zikiro jatea bertsolariekin (Lizaso eta Peñagarikano). Animizioa Modestorekin. Arratsalde eta gauz Modestorekin dantzaldia.



Gaztelu

Abuztuak 3, ortzeguna 7etan Suziriak eta txistulariak. 9,30etan Baztan zopak Ostatuan.

Abuztuak 4, ortzirala 'Santo Domingo eguna' 11,30etan meza. 12,30etan salda ostatuan. 5etan pala partidua; Gabriel eta Iñigo, Meltxor eta Santiren kontra. Dantzaldia Joxe Angel-ekin.

Abuztuak 5, larunbata 'Haurren eguna' Haurrentzat jokoak 'Parke Bambi'ren eskutik. 12etan mus txapelketa. 5etan Plater Tiraketa herrikoentzat. Dantzaldia Zaraitu taldearekin.

Abuztuak 6, igandea Eguerdiko 1etan Aizkora apostua; Donato Larretxea eta Juan Telletxea, Antonio Jaunarena eta Patxi Mindegiaren kontra. 5etan Pilota partidua. Dantzaldia Orquesta Principe-rekin.

Abuztuak 7, astelehena 11etan Herri Kirolak. 1etan Bertso saioa; Silveira, Bitor Elizagoien eta Estitxu Fernandez. 14,30etan zikiro jatea bertsolariekin. Ondotik Herri Kirolak. Dantzaldia Jose Angel-ekin. Bestan ongi akitzeko Txokolate Jatea Ostatuan.

Aurtengoan ere aizkora apostuak nagusituko dira Beintza-Labaien eta Gazteluko bestetan

Argazkiak: Ana Mari eta Edurnek utziak

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

Iturgintza eta kalefakzioa

Valentin Cubero

TfNOA: 45 17 63 • GAZTELU

GAZTELUKO POSADA

Besta ederrak pasa itzazue!!

TfNOA: 45 01 05 • GAZTELU

SUNBILLAKO FONDA

Pintxoak eta bokadilloak

IRURIBIETA

OSTATU JATETXEA

Irun-Iruñea bidea, 61,5 Kma, Tfnoa: 450399 - SUNBILLA

HERRIKO ETXEO OSTATUA

Jatetxea

Besta ederrak pasa

Karrika Nagusia • Tfnoa: 45 01 54 • SUNBILLA

TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie Sunbilla, Beintza-Labaien eta gazteluarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

Goizueta


Musika eskolan izena emateko epea zabalik

Edozein adineko herritarrek izena eman dezake bertan

ESTEBAN AROZENA

1995-96 ikasturtean udal musika eskolan ikasi nahi dutentzat izena emateko epea zabalik dago hila-bete bukaera arte, horretarako Herriko Etxera joan eta izena ematea nahikoa delarik, solfeoa edota zein musika tresna ikasi nahi den jarriz aldireraren.

Aurten arte trikiti-xa, pianoa eta txistua bakarrik erakusten baldin badira ere, beste instrumenturen bat nahiago luketen laupabost ikasle izanez gero, horretarako aukeraren bat izan omen dezakete, duela aste batzuk irakasle eta gurasoen artean egindako bileran esandakoaren arabera. Aipagarria da



Bittor Aiape kantari arituko da abuztiaren 12an

baiza, askok musika eskolaren iharduera haur edo gaztetxoei mugatua dagoela uste badute ere, hori ez dela horrela, edozein adineko herritarrek izena eman

baitezakete bertan.

Txalaparta

Ikastaro desberdinekin jarraituz esan, hurrengo urtik ekaina arte txalaparta jotzen erakusteko asmoa

duela herrian Arantxa Ansa aranoarrak. Bikoteka apuntatzea komeni da, ezinbestekoa ez izan arren. Interesatuak 397020 telefonora deizakete izena emate-

ko edo informazio gehiago jasotzeko.

Aurrekontua

103 milioi Ptakoa. dauztailaren 14ko bilkuran udal korporazioak ahobatez onartutako 1995eko aurrekontua. Donostian burutuko den Kilometroak-i 20.000 pezeta eta Tuterako Nafarroa Oinez-i beste 30.000 pezetako dirulaguntza ematea ere onartu zen aipatutako plenoan.

Aiape abuztuaren 12an

Bittor Aiape abeslari gazteak kontzertu bat eskeiniko du herrian abuztuaren 12an, gaueko 9etan. Emanaldia udalak antolatzen du 'Arte eta Kultura' kanpainaren barnean.


Areso

Mertxe Amondarain irakasleari omenaldia Kultur Egunean

Hamar urtez irakasle izan ondoren beste herri batera joan da

JUANA M^o SAIZAR

Mertxe Amondarain azken hamar urteota irakasle izan denak Aresoko eskolatik beste leku batera joan da lanera. Berekin batera ailegatu zen Aresora euskarazko hezkuntza. Eskola guztia bere kargu izanik, aldaketa ugari egin zituen. Nagusia 1992an, gela bakarrean bost mailetako 18 ikasleak iza-



Omenaldi beroa eskaini zitzaion Mertzexi Argazkia: Juana Mari

tetik, obrak egin ondoren hiru gela, hiru irakasle eta zortzi maila izatera igaro baitzen Aresoko eskola. Oso maitatua izan da ikasleen artean eta omenaldi gisara aureskua dantzatu zioten Kultur Egunean.

Ordutegi berria udaletxean

Berrito aldatu da udaletxeko ordutegia.

Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 9,30etatik 2etara zabalik izanen da. Axun idazkaria joan da eta Margarita berrito etorri da.

Albiente lanpostua

Albiente postua libre dago eta lanpostu hau bete nahi duenak udaletxera jo behar du uztailearen 27a baino lehen.




Oskar Astibiak irabazi du Plazaolako azal lehiaketa

Euskal Herriko Gazte asanbladakoak eta IKakoak euskara ikastaroak burutzen ari dira udan

JOSEBA AZPIROZ

Oskar Astibiak irabazi du Plazaola aldizkariaren azala egiteko deitua zen lehiaketa. Oskarren lanarekin batera, beste 9 lan aurkeztu ziren lehiaketara. Guzi hoiekin, uztailaren 16an erakusketak antolatu zen Aurrera elkarrean, eta hura ikustera joandako jendearen botu gehienak Oskarren lanak eskuratu zituen.

Irabazlea izateagatik dagokion 20.000 pezetako saria, San Tiburtzio bezperan emanen diote.



Uztailaren 17an, Joantxenea baserrian, behi batek argazkianazaltzen diren 78 eta 27 kilotako bi txekor hauek erditu zituen

Ikastaroak hemen egitearen arrazoia, lokal bat izateaz aparte, "euskal hiztuna den herri batean denboraldi bat igarotzeak ikasleari egiten dion mesedea" azpimarratzen dute arduradunek.

Era berean, "kanpoko ekarpen honek herriko giroa bizitu eta euskara ikasi eta erabiltzearen garrantzia

isladatzen duela" ere badiote.

Matrikula

Aralarudal musika eskolan matrikulatzeko epea, uztailaren 31n bukatuko da ikasle berri eta ekainean dena gaingitu zutenentzat. Gainerakoek, berri, irailaren 1etik 15eraino dute izena emateko aukera.

ttipi-flash

Ibilgailuak erretiratzeko deia

Udalak bando baten bidez dagoeneko erabiltzen ez diren ibilgailuak erretiratu eta baja emateko deia luzatu die herritarrei. Ohartarazi denez, baja ez ematekotan, zirkulazio zerga ordaintzen segitu beharko dute.

Euskara ikastaroak

Aurten ere badira euskara ikastaroak Leitza eskola publikoan. Uztailean Euskal Herriko Gazte Asanbladakoak burutzen ari dira ikastaroa eta abuztuan IKAkoek egingo dute.



Pestetako usaia nabaria da dagoeneko

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun 20.000 irakurle

ttipi-ttaparekin zure publizitatea zonalde-xoko guztian ezanen duzu

Zure inguruak klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA DESINFECCIONES

© 63 01 55 BERA

BEINTZAko OSTATUA

Ongi pasa herriko festak

Tfnoa: 45 00 14 BEINTZA-LABAIEN

Goizueta


Musika eskolan izena emateko epea zabalik

Edozein adineko herritarrek izena eman dezake bertan

ESTEBAN AROZENA

1995-96 ikasturtean udal musika eskolan ikasi nahi dutentzat izena emateko epea zabalik dago hila-bete bukaera arte, horretarako Herriko Etxera joan eta izena ematea nahikoa delarik, solfeoa edota zein musika tresna ikasi nahi den jarriz aldeberean.

Aurten arte trikiti-xa, pianoa eta txistua bakarrik erakusten baldin badira ere, beste instrumenturen bat nahiago luketen laupabost ikasle izanez gero, horretarako aukeraren bat izan omen dezakete, duela aste batzuk irakasle eta gurasoen artean egindako bileran esandakoaren arabera. Aipagarria da



Bittor Aiape kantari arituko da abuztiaren 12an

baita, askok musika eskolaren iharduera haur edo gaztetxoei mugatua dagoela uste badute ere, hori ez dela horrela, edozein adineko herritarrek izena eman

baitezakete bertan.

Txalaparta

Ikastaro desberdinekin jarraituz esan, hurrengo urritik ekaina arte txalaparta josten erakusteko asmoa

duela herrian Arantxa Ansa aranoarrak. Bikoteka apuntatzea komeni da, ezinbestekoa ez izan arren. Interesatuak 397020 telefonora dei dezakete izena emate-

ko edo informazio gehiago jasotzeko.

Aurrekontua

103 milioi Ptakoa. da uztailaren 14ko bilkuran udal korporazioak ahobatez onartutako 1995eko aurrekontua. Donostian burutuko den Kilometroak-i 20.000 pezeta eta Tuterako Nafarroa Oinez-i beste 30.000 pezetako dirulaguntza ematea ere onartu zen aipatutako plenoan.

Aiape abuztuaren 12an

Bittor Aiape abeslari gazteak kontzertu bat eskeiniko du herrian abuztuaren 12an, gaueko 9etan. Emanaldia udalak antolatzen du 'Arte eta Kultura' kanpainaren barrenean.


Areso

Mertxe Amondarain irakasleari omenaldia Kultur Egunean

Hamar urtez irakasle izan ondoren beste herri batera joan da

JUANA M^a SAIZAR

Mertxe Amondarain azken hamar urteota irakasle izan denak Aresoko eskolatik beste leku batera joan da lanera. Berekin batera ailegatu zen Aresora euskarazko hezkuntza. Eskola guztia bere kargu izanik, aldaketa ugari egin zituen. Nagusiena 1992an, gela bakarrean bost mailetako 18 ikasleak iza-



Omenaldi beroa eskaini zitzaion Mertzxi

Argazkia: Juana Mari

tetik, obrak egin ondoren hiru gela, hiru irakasle eta zortzi maila izatera igaro baitzen Aresoko eskola. Oso maitatua izan da ikasleen artean eta omenaldi gisara aurrerakua dantzatu zioten Kultur Egunean.

Ordutegi berria udaletxean

Berriro aldatu da udaletxeko ordutegia.

Astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 9,30etatik 2etara zabalik izanen da. Axun idazkaria joan da eta Margarita berriro etorri da.

Albiente lanpostua

Albiente postua libre dago eta lanpostu hau bete nahi duenak udaletxera jo behar du uztailaren 27a baino lehen.

Leitza

Oskar Astibiak irabazi du Plazaolako azal lehiaketa

Euskal Herriko Gazte Asanbladakoak eta IKAkoak euskara ikastaroak burutzen ari dira udan

JOSEBA AZPIROZ

Oskar Astibiak irabazi du Plazaola aldizkariaren azala egiteko deitua zen lehiaketa. Oskarren lanarekin batera, beste 9 lan aurkeztu ziren lehiaketara. Guzi hoiakin, uztailaren 16an erakusketa bat antolatu zen Aurrera elkarrean, eta hura ikustera joandako jendearen botu gehienak Oskarren lanak eskuratu zituen.

Irabazlea izateagatik dagokion 20.000 pezetako saria, San Tiburtzio bezperan emanen diote.

Euskara ikastaroak

Aurten ere badira euskara ikastaroak Leitzaoko eskola publikoan. Uztailean Euskal Herriko Gazte Asanbladakoak burutzen ari dira ikastaroa eta abuztuan IKAkoak egingo dute.



Uztailaren 17an, Joantxenea baserrian, behi batek argazkianazaltzen diren 78 eta 27 kilotako bi txekor hauek erditu zituen

Ikastaroak hemen egitearen arrazoia, lokal bat izateaz aparte, "euskal hiztuna den herri batean denboraldi bat igarotzeak ikasleari egiten dion mesedea" azpimarratzen dute arduradunek.

Era berean, "kanpoko ekarpen honek herriko giroabizitu eta euskara ikasi eta erabiltzearen garrantzia

isladatzen duela" ere badiote.

Matrikula

Aralar udal musika eskolan matrikulatzeko epea, uztailaren 31n bukatuko da ikasle berri eta ekainean dena gairatuta zutenentzat. Gainerakoek, berriz, irailaren 1etik 15era izango dute izena emateko aukera.

ttipi-flash

❖ Ibilgailuak erretiratzeko deia

Udalak bando baten bidez dagoeneko erabiltzen ez diren ibilgailuak erretiratu eta baja emateko deia luzatu die herritarrei. Ohartarazi denez, baja ez ematekotan, zirkulazio zerga ordaintzen segitu beharko dute.



Pestetako usaia nabaria da dagoeneko

**GAZTELU
ITURGINTZA**

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 •
LEITZA

ttipi-ttapa

6.100 harpidedun 20.000 irakurle
ttipi-ttaparekin zure publikitatearen
zonako sukalde-rako guzitan izanen duzu

Zure ingurua klase guztiko insektuz
(xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta
arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu
arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

© 63 01 55
BERA



**Ongi pasa
herriko festak**

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

Baztan

Baztandarren Biltzarra ospatzera jende aunitz etorri zen

Amaiurko karroza, Otxondoko merendalekua erakusten zuena, izan zen aurtengo irabazlea

JOSEBA IGARABIDE

Goizetik eguraldi goibela atera bazen ere —barkaria, badaezpada ere, Pilar ikastetxe-ko frontoian egin zen— eguzkia nagusitu zen uztailaren 16an ospatutako Baztandarren Biltzarraren hogaite-mabigarren edizioan.

Goizetik laxoa partidua jokatu zen eta eguerdi partean hainbat jende hurbildu zen orga desfilea ikustera. Hamar herrietako karrozak bertzerik ez ziren aurkeztu eta hauen artean Amaiurkoa izan zen lehen saria eskuratu zuena, Oronoz-Mugairikoak bigarren eta Iruritakoak hirugarrena. AEKk eta ikastolak ere karrozak plazaratu zituzten. Pilarren egin zen bazkarian 1.800 bat lagun bildu ziren eta bazkalondoko giroa, urtero bezala, arras berexia izan zen, bertsolari, kantari eta musikarien laguntzari esker.

Antolatzaileak gustora zeuden bildutako jendearekin, nahiz eta jakina denez, antolaketan lanetan jendearen partehartzeko haundia gogoratu.

Arratsaldean Elizondoko karriketara i-



Goitian, Oronoz-Mugairiko gazteak 1815ko ogi labea erakusten zuten karrozaren aitzinean. Eskuinean, Berroetako karroza, garai bateko fraile idazkariak irudikatuz.

Arg.: Josu INZIARTE



tzuli zen besta giroa eta kalejira burutu zen, presoen askatasuna eskatuz eta Txema Ballarena intsumisoarekin elkartasuna adieraziz. Ez zen istilurik izan, alkateak guardia zibila ez agertzea eskatu baitzion gobernadore zibilarri.

Alkate aukeraketa Iruritan

Igande honetan egin behar zen Iruritan alkate berriaren aukeraketa. Juanito Meoki berak aurkezteko asmoa zuen, nahiz eta orain Baztango udalean zintzuzia izan.

Chiapasetik Iruritarra

Rodolfo Izal, Mexikoko Chiapasetik kanporatutako apezak nafarrak "Indioen garraxia" izeneko hitzaldia eman zuen joan den ortziralean Iruritako elizan. Indioen egoerari buruz aritu zen.

ttipi-flash

❖ **Julio Oroz** iruritarra Alemanian epaitu zuten, plutonio kontrabandoan ustez aritu izanagatik. Hiru urte eta bederatzi hilabetezko kartzela zigorra ezarri diote.



❖ **Gorramendin** FMko emisio estazio bat instalatzeko proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak. Proiektuak 14,4 milioi pezetako aurrekontua du.

❖ **Elizondoko erreto berria** Javier Azpiroz izanen da, orain arte zegoen Miguel Alberroren ordez.

❖ **Jubilatuak** bazkaria izanen dute gaur ortzeguna, 27, Galartza jatetxean.



JATETXEA

Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ARROPA DENDA



CERVANTES

HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Eskisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

Zigako San Lorentzoak, abuztuaren 9tik 13ra ospatuko dira

PABLO MENDIBURU

Abuztuak 9

12etan suziriak eta ezkilaren errepika. **8etan** Baztan zopak Etxezuri eta Indako ostatuetan. **9etan** herriko gazteen afaria. **12etatik 4etara** dantzaldia MODESTOrekin.

Abuztuak 10

San Lorentzo Eguna **9etan** argi soinuak. **11etan** Meza Nagusia. **12etan** luntxa herriko plazan. **6etan** herriko mutilen pala txapelketa. Dantzaldia MODESTOrekin.

Abuztuak 11

Haurren Eguna **11etan** nesken pala txapelketa. **Arratsalde**z haurrentzat jokoak. Arratsalde eta gauz dantzaldia ELURTE taldearekin. **12etan** Erramun MARTIKORENaren kantaldia.

Abuztuak 12

11etan mus txapelketa. **12etan** nesken pala txapelketaren finala. **1etan** mutilen pala txapelketaren finala. **7,30etan**



Zikiro jatea eta emakumeendako pala txapelketaren finalak



herri kirolak; proba konbinatua (Basaburua, Lesaka, Arraiotz eta Ultzama). Dantzaldia ELURTE taldearekin. **10etan** afaria herriko frontoian.

Abuztuak 13

11etan mus txapelketaren finalak. **2etan** zikiro jatea. Bazkal ondoren zahar eta gazteen arteko norgehiagoka (sokatira, txingak...). Arratsalde eta gauz dantzaldia MARTIN taldearekin. Ondoren, "Pobre de Mi". **10etan** zikiro afaria.

Abuztuko kultur ekitaldiak

Abuztuan zehar burutzeko zenbaitekitaldi antolatu ditu Baztango udalak.

Abuztuaren 5etik 31 artio Rafael Ubani margolariak bere lanak erakutsiko ditu Arizkunenea Kultur Etxean. Orduetgia, arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara izanen da lan egunetan eta eguerdiko 2etatik 4etara eta arratsaldeko 7,30etatik 9,30etara besta egunetan.

Abuztuaren 5ean,

Edurne Ubanik piano kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko ganbaran, arratsaldeko 8etan. Edurnek Seria bin Debussy, Maurice Ravel eta Chopinen lanak joko ditu, bertzeak bertze.

MARGO TAILERRA ETA ERAKUSKETA

Bertze alde batetik, Jose Maria Apezetxea eta Tomas Sobrino margolari baztandarrak 'Baztango paisaiak' izeneko margo tailerra zuzenduko du-

te. Tailer hau, abuztuko eguzkia aprobe txatuz ikasgeletatik kanpo burutuko da, astelehen, asteazken eta ortziraletan, goizeko 10etatik 1etara.

Azkenik, borts eta hamairu urte bitarteko haurrentako margo ikastaroa ere antolatu da, uztailearen 31tik abuztuaren 31 artio. Orduetgia, goizeko 11,30etatik 1etara izanen da. Matrikula gisara 2.000 pezeta ordaindu beharko dira.

QSS FOTOS EN 1 HORA

ZUR-ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO Tel. 58 01 55

DONEZTEBE Tel. Fax. 45 08 25

fm FOTO

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

* Barne eta kanporako landareak
* Ezkontzetarako diseinua
* Jardinen mantenimendua

ESTHER

LOREDENDA

Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Irun-Iruña errep. • Tfnoa: 592200 • NARBARTE

Sara


XXXIII. Kontrabandisten Laisterketa agorrilaren 20an

Euskal Herriko I. Goitibehera txapelketa berriz, irailaren 2an ospatuko da Saran

MIXEL ETA JACQUELINE

Agorrilaren 20an iraganen da Kontrabandisten Laisterkaldiaren hogeita hamairugarren edizioa. 36 ordezkari parte hartuko dute (18 herri mugarietarik bina ordezkari) eta ohi den bezala bederatzik kilometra beteko dituzte Larrun mazelean Zazpi Fagoetaraino igoz. Iaz Mixel Larzabal 'Moxo' saratarrak irabazi zuen. Azken urte haue-tan Sara eta Berako ordezkarien artean atera dira hoberenak.

Egun berean plazan eskulan eta bertako ekoizpenen azoka bat izanen da: salgai izanen da gasna, urdai produktuak, ezti, arno eta eskuz egindako gauza aunitz.



Tramankuluok ikus ahal izanen dira irailaren 2an

Arg.: ARGIA

Euskal Herriko I. Goitibehera txapelketa

Euskal Herriko Lehen Goitibehera Lasterketa Saran burutuko da irailaren 2an. Hiru gurpileko goitibeherak oso ezagunak dira Hegoaldean, be-

reziki herriko bestetan, bainan hemen praktika hori arrotza da. Iparraldeko gazte talde batak sortu du Goitibehera elkarte, ekintza horren ezagutarazteko

eta huni doakio ere Euskal Herriko lasterketaren antolatzea. San Inazio lepotik Sararako bidean izanen da tramankulu hauek ikusteko parada.

Barnetegiak hasi dira

Sarako barnetegiaren ikastaroak uz-tailaren 17an abiatu dira. Hauek hama-bortz eguneko txandetan egingen dira agor-rilaren bukaera arte, beraz ordurarte ikusiko ditugu euskara ikastera eta lantzer-a etorri diren neska-mutilak. Jakin behar da arduradunek nahi luketela barnetegi bat idekia atxiki urte osoan Saran. Lehen urratsa litaik e-remu bat plazatik hurbil aurkitzea euskaltegi baten eraikitzekotan.

Norbaitek zerbait sendi balinbadu inguru hoietan aipa dezala.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

*Egoki-ren banatzaile
baimendua*



MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

SOULE

Gurutze eta hilarriak

☎ 453038 ARIZKUN
☎ 123572 IRUÑA

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



Urdazubi

Urteko lehen sortzeak eta biak egun berean

Uztailaren 10ean sortu ziren Jon eta Jon Ander



Ezker aldean Jon Irigoien eta eskuinean Jon Ander Bengoetxea

tatu eta jabetxe berri bat edeki zen Josenean. Dantxarineako auzoan dago, muga ondoran. Honekin 10 jabetxe ditugu herrian eta 21 ostatu. Bada non aukeratu!

Oporrak

Uztailean urtero bezala haurrak Elizondoko igerilekuan izan dira, autobusean joanez Zugarramurdikoekin batera. Bertzalde, Silvia Olaizola, 15 urteko neskatxa, kolonietan izan da, hamar egun pasatuz talde batekin.

ALIZIA OLAIZOLA

Egun baten barnean bi sortze izan dira herrian. Uztailaren 10ean bi haur sortu ziren; Jon Irigoien Mendiburu eta Jon Ander Bengoetxea Azkarra, aurtengo lehendabiziko sortzeak, izan ere. Esperatu behar izan dugu, baina badi-rudi binaka etortzen hasi direla. Horrela segitzen bazuten ez zen batere gaizki izanen gero eta haur guttiago sortzen ari baita.

Jabetxe berria

San Fermin bezperan, uztailaren 6an, os-

Zugarramurdi

Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertua abuztuaren 23an

Galizako Orkestra Sinfonikoak joko du lezeetan



Kontzertu bikaina aditzeko aukera izanen da lezeetan

KORO ETA MARGARI

Abuztuaren 23an sekulako ospakizuna dugu lezeetan, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barnean antolatutako kontzertu emanaldia, hain zuzen. Egun horretan, arratseko 8,30etan Galizako Orkestra Sinfonikoak sorginkeria eta mitologiari buruzko sei tema joko ditu, hauen artean ezagunak guretzat: Fallaren "El amor brujo" eta Guridiren "Ezpatadantza" eta "Plenilunio de Amaya". Kontzer-

tuaren aurretik Ituren-go joaldunak arituko dira jendea pittat giroan sartzeko. Sarrerak 1.000 eta 2.000 pta (to-

kiaren arabera) gostako dira.

Pilota txapelketa

Uztailaren 16an ha-

si zen Zugarramurdiko I. pilota txapelketa. Hiru modalitate antolatu dira eta denetara 28 bikotek parte hartuko du-

te: gomaz (11 bikote), larruz (6) eta eskuz (11). Azketa frontoian jokatzen dute larunbat eta igandetan.

EZKONTZAK

Angel M^a Meoki Goñi eta **Itziar Martinez de Icaya Arriada**, Elizondokoak, uztailaren 8an.

Juan M^a Dorregarai Organbide eta **Marie Angele Oiaregi Arriada**, Iurrita eta Elizondokoa, uztailaren 8an.

Miguel Angel Martinez Berasain eta **Isabel Begoña Gago Agesta**, Bera eta Sunbillakoa, uztailaren 15ean.

Junkal Fagoaga Vergara eta **Pedro Igartua Mendizabal**, Arantza eta Zumarragakoa, uztailaren 15ean.

Andres Lanzalot Lanz eta **M^a Reyes Sagastibeltza Aierza**, Lekunberri eta Leitzakoa, ekainaren 24an.

Raul Zelaieta Oskoz eta **Virginia Guerra Sein**, Igantzikoak, ekainaren 17an.

JAIOTZAK

Oihane Antuña Zelaieta, Sunbillakoa, uztailaren 16an.

Jon Ander Bengoetxea Azkarraga, Urdazubikoa, uztailaren 10ean.

Jon Irigoien Mendiburu, Urdazubikoa, uztailaren 10ean.

Naia Garcia Irazoki, Berakoa, ekainaren 21ean.

Gexan Petrirena Rozas, Elgorriagakoa, martxoaren 3an.

HERIOTZAK

Maria Otxandorena Perurena, Sunbillakoa, uztailaren 9an, 80 urte.

Modesta Etxarri Zubeldia, Elizondon, uztailaren 8an, 83 urte.

Pedro Ballarena Goñi, Elizondokoa, uztailaren 18an, 74 urte.

Salome Gonzalez Ezpeleta, Arantzakoa, uztailaren 10ean, 61 urte.

Josefa Iguzkiagirre Etxebeste, Igantzikoa, ekainaren 11n, 59 urte.

Eustaquia Iguzkiagirre Irigoien, Igantzikoa, ekainaren 16an, 77 urte.

Juan Irigoien Lizardi, Igantzikoa, uztailaren 13an, 81 urte.



ttipi-ttapa

**Urte oso batez
(24 aldizkari)
Ameriketara
bidaltzeak 8.000
Pta. balio du.**

Interesatua egonez gero deitu 631188ra

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua 246750

Virgen del Camino

Erresidencia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitalea 460299

Erresidencia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberduero 450335 / 450336

Arrakastaz garatu da aurten ere Baztandarren Biltzarra

Bortz herrik orgarik aurkeztu ez bazuten ere ateratakoak ederrak ziren



Iruritikako karroza eta trikitilariak. Aurten ere lan handia eskatzen zuten karrozak ikusi ahal izan ditugu Baztandarren Biltzarrean. MENA

Langile bat kontratatzeko deialdia

Cederna-Garalurel-karteak Ekonomi edo Enpresa zientzietan lizentziatua den pertsona bat kontratatzeko deialdia luzatu du.

Kontratua praktilatzen izanen da, urtebetekoa bainan bertze horrenbertzerako luza daithekena. Lantokia Iruñan izanen litzateke eta iraila hasieratik lanean hasteko prest beharko luke

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Titulua eskuratu zenetik lau urte baino gehiago igaroz ez izateaz gain, INEMeko zerrendetan izena emana izan beharko du lanera aurkezten denak. Kontabilitate gaiak ongi menperatu beharko ditu eta informatika ezagupenak izan beharko ditu, testu prozesadorea eta kalkulu orria, batez ere. Cederna-Garalurren iharduera-eremuan bizitzea eta gidatzeko baimena eta ibilgailua edukitzea nahitaezkoa izanen da. Kontuan hartuko diren beharkizunak, euskara, frantses eta ingelesaren erabilera mintzatu eta idatzia izanen dira. Informazioa INEMen.



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

MATXINBELTZENA

LESACA



Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxes: 62 75 53 • LESACA



Esker Onak
Urtemugak
Eskelak

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu

ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88

Txarutak ez zuten Lizarrari irabazterik izan Herriarteko pilota txapelketaren finalean

Labrit pilotalekuan uztailaren 8an jokaturako finalean 3-1 galdu zuten Baztan eta Malerrekako pilotariek

Baztan eta Malerrekako pilotariak bil-tzen dituen Txaruta elkarteak ezin izan zuten Nafarroako Herriarteko txapelketaren finala irabazi. Uztailaren 8an, Lizarrako taldea izan zuen kontrario Labrit pilotalekuan eta partidu bakarra irabazi ahal izan zuten eskualdeko ordezkariak.

Lizarratarren nagusitasuna maila tiki-entetan nabarmentzen hasi zen. Alebinetan, Bados eta Moranek 18-3 irabazi zioten Txarutako Arraztoa eta Cebrian-i. Kadetetan ere errex irabazi zuten Balerdi IV eta Ruiz lizarratarrek, borts tantutan utzi baizituzten Uharte eta Irigoien. Txarutakoen lehendabiziko finala galduta zegoela zirudien, baina jubenil mailan itxaropena bueltatu zen, Goñi eta Otxandorenak 22-7 irabazi baitzieten Otxandorena eta Arrastiari. Beraz, haundien mailan erabaki behar zen txapelduna eta Txarutako bikoteak (Leitza eta Apeztegia) 9 tantutan utzi behar zituzten Yaniz II eta Auskin lizarratarrek. Ez zen lan erraza eta bi iturendarak sei tantu lortu zituztenean hamargarrena atera zuten Lizarrako ordezkariak (azken emaitza 22-7koa izan zen). Honenbertzez, Txarutak bere lehen finala galdu zuten, baina izanen dute aukera berririk. Animo!



Lizarrako txapeldunak eta Txarutako azpitxapeldunak elkarrekin, sari banaketaren ondoren

Argazkia: EGIN

LAXOA

Txapelketaren errebantxa eta omenaldia Donezteben

Joan den igandean Doneztebeko Bear-Zana plazan herriko A eta B taldeen artean aurten-go Laxoa txapelketaren errebantxa burutu zen. Ekainaren 25ean jokaturako finalean, A taldea garaile izan zenez, oraingo honetan, beste aukera honekin, gazteek txapeldunak bezain onak dirala frogatu nahi izan zuten. Aldi berean, Doneztebeko goantelariak Mikel Iribarren 'Xalton' txatxariari omenaldi txiki bat es-

keini zioten urteetan zehar berak egindako lanagatik.

Bertzalde, urtero Baztandarren Biltzarren jokatzeko den partiduan, Arraiozko taldeak (Saldias, Iturralde, Gamio eta Karrikaburu) Doneztebeko laukote bat (Ganboa, Iribarren, Lizaso eta Agirre) gaitu zuen 9 eta 4 jokuz. Azkenik, uztailaren 30ean Baztan eta Errekako goantelariak Bilibonara joanen dira erakustaldia egitera.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Txaruta pilota elkarte.

Baztan eta Malerrekako pilotariak Herriarteko pilota txapelketa bikaina burutu dute, lehen aldiz finalera ailegatuz. Bertan Lizarra topatu dute eta ez dute irabazterik izan, baina Indurainek ere ez zuten lehendabiziko Tourretan irabazi.

Eguzkiarekin kontu eman.

Egun sargori hauetan, eguzkiak gogor jotzen duenean ikusi izan dugu jendea bizikletan edo laisterka dabilela. Kontuz... kirola egin nahi izanez gero eguneko lehen eta azken orduak aprobetxatzea komenigarriagoa da.

Jose txo Ezkurraren omenezko txapelketan 138 pilotarik parte hartu dute

Ekainaren 24an jokatu ziren Donezteben sei maila ezberdinetako finalak

Aurtengo 'Jose txo Ezkurra' memorialean 138 pilotari aritu ziren sei maila ezberdinetan. Finalak joan den ekainaren 24an ospatu ziren Donezteben. Hauek dira finaleko emaitzak:

- **Tikiak:** Urrutia-Ezkurra (Saldias), 18; Jauregi-Garmendia (Amaiur), 16.
- **Umeak:** Plaza-Arraztoa (Irurita), 18; Amiano-Iriarte (Amaiur), 7.
- **Haurrak:** Uterga (Doneztebe)-Altzugarai (Almandoz), 15; Ibarra (Ziga)-Legarra (Doneztebe), 18.
- **Gaztetxoak:** Jaurena-Eiheragarai (Urdazubi), 18; Ibarra (Erratzu)-Baleztena (Eratsun), 14.
- **Gazteak:** Urrutia (Saldias)-Zozia (Beintza-Labaien), 12; Baleztena (Eratsun)-Iribarren (Elizondo), 18.



Argazkian aunitz ageri badira ere, aurtengo 'Jose txo Ezkurra' Memorialean bertze hainbat pilotarik parte hartu dute Argazkia: MENA

• **Helduak:** Patxi Ordoki-Luis Martin (Doneztebe), 17; Diaz de Ultzurrun anaiak (Ultzama), 22.

Txaruta pilota elkartek antolatutako memorial honek arrakasta handia izan du. Sari banaketan Koteto

Ezkurra (erremontelaria eta Jose txozenaren semea), Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea, Alejandro

Maylin Doneztebeko zinegotzia eta Jabier Almandoz, Nafarroako Aurrezki Kutxako zuzendaria izan ziren.

Igeriketa txapelketak nonnahi uda honetan

Uztailaren 26an burutzekoa zen Elizondoko pistzina Baztango igeriketa txapelketa, alebin, haur eta kadete mailako neska-mutikoei zuzendua.

Abuztuaren 18an, berriz, goizeko 11etatik aurrera burutuko da Leitzako igerilekuan eskualdeko txapelketa, alebin (1983 eta 84an jaiotakoak) eta haur (85-86) maileri zuzendua. Frogak australiana erara eta lau estiloetan burutuko da. Izena emateko epea

abuztuaren 11n bukatuko da eta Elizondoko Kultur Etxean eman behar da izena edo 581279 telefonora deituz (Elixabet).

Abuztuaren 25ean, azkenik, Berako Gure Txokoa txapelketa jokatuko da arratsaldeko 4,30etatik aitzineira. Hemen alebin eta haurrekin batera, kadeteak eta junior mailako igerilariek ere parte hartzeko aukera izanen dute. Izenak leku berean abuztuaren 22a baino lehen.



Igerilariei beraien dohaiak erakusteko garaia ailegatu zaie Artxiboa

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

SUNBILLA

► **Abuztuaren 10etik 14era.** Ikus xehetasunak 16. orrialdean.

ZIGA

► **Abuztuaren 9tik 13ra.** Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

► **Abuztuaren 4tik 8ra.** Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

GAZTELU

► **Abuztuaren 3tik 7ra.** Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

BERA

► **Abuztuaren 2tik 6ra.** Ikus xehetasunak erdiko gehigarrian.

LEITZA

► **Abuztuaren 10tik 15era.** Ikus xehetasunak erdiko gehigarrian.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Abuztuaren 5etik 31ra.** Rafael Ubani margolariaren lanak ikusgai Arizkunenean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Abuztuaren 5ean.** Edurne Ubani pianojolearen kontzertua Kultur Etxeko ganbaran, arratsaldeko 8etan.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Oreina Oporto erara

Osagaiak 4 lagunendako

• *Tipula bat • 2 porru • azenarriak • baratxuriak • Oporto baso erdi bat • 2 kilo orein haragi garbia eta puxkatua •*

Prestatzeko manera

Bezperatik, orein haragia adoboan jarri. Prestatzen hastera-koan, orein haragia adobotik ateri eta ongi xukatu. Zartagi bate-

an orein puxkak prexitu ondotik, momentuz gorde.

Tipula, porruak, baratxuriak eta azenarriak ongi xehetu.

Ontzi batean oreina prexitzeko dugu, eta prexitzera-koan erabili dugun olio aprobetxatuz, bertan pasatuko ditugu barazkiakere. Hauek gorritu baino lehen, gordeta genuen orein haragia erantziko diogu



M^{re} Teresa
PIKABEA
Benta Zahar
Jatetxkoa
•BERA•

barazkiei, Oporto basoerdia eta behar duen urarekin batera. Gatza bota eta utzi egiten poliki-poliki haragia ongi xamurtu arte.

On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.900 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 193 pzta./kilo
- **Zerramak:** 120-130 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
Extra 550
1.koa 525
2.koa 510

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
Extra 560
1.koa 530
2.koa 510
Oharra: Prezio:hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun inguruak):
Nabarrak: urruzak 20.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.
- **Mestizoak:** urruzak 34.000 eta idixkoak 46.000 Pzta.
- **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 950.
- **Udareondoa** 950 pzta.
- **Gereziondoa** 1.050 pzta.
- **Aranondoa** 1.050 pzta.
- **Muxika** 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Porruak** zientoa 300.
- **Pipertxorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.

koxkonta



Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia

Deitu
emeserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

Larru-azala eguzkiaren eraginaz babesteko aholkuak



Nahiz eta lainotuta egon filtro babesgarria eman behar da, eguzki izpiek hodeiak pasatzen baitituzte

Eguzkitako krema eta ukendu azal-babesleak bizitzako lehen 15 urteetan erabiltzeak %80an murrizten du larru-azaleko minbizia jasateko arriskua. Eta ohitura honekin batera, goizeko 11etatik arratsaldeko 4ak bitartean eguzkitan ez egotea eta brontzeatua pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago hartuz joatea behar-beharrezkoa da, ez bakarrik osasunarentzat kaltegarria ez izateko baizik eta larru-azala behar baino lehen zahartu ez dadin. Beltzaranez, guttienez babesgarri indizea 8 duen filtroa erabili behar dute. Larru argikoek babesgarri indizea 15koa edo gehiagokoa eta tarteko larrua dutenek berriz 15ekin hasi eta beltzatzen doazen heinean 8ra jeitsi behar dute. Haurrek beti 15a behar dute eta uretan iraun dezaken filtroa. Kontu berezia eskatzen dute, larrua helduena baino delikatuagoa delako eta

maiz eman behar zaie babesgarria. Filtro babesgarriak eguzkitan jartzen den aldiro eman behar dira, nahiz eta lainotuta egon, eguzkiaren ultravioleta izpien %90ak hodeietatik pasatzen baita.

Itxasoan bainu bat hartu ondoren dutxa hartu behar da gatzak kentzeko, gainerakoan kristalaren moduan eragiten baitu larru-azalean

Aurpegiak, lepoak, soilguneak, ezpainak, belarriek eta oinek arreta berezia behar dute. Larru-azala ongi zaintzeko bertzeko aholku garrantzitsua honako hau da: itaxsoan bainu bat hartu ondoren, dutxa on bat hartu gatzak kentzeko. Izan ere, gatzak kristalaren moduan eragiten du larru-azalean eta erredura tikiak sufritzen ahal dira. Mendian edo itxasoan kirola egiten dutenek eta larru sensiblea dutenek indize babesgarria 20koa izan behar dute.

EROSKI ALDIZKARITIK BILDUA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzealde Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopanak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

GOIZUETA

► **Abuztuaren 13an** igande, arratsaldeko 7eta Pilotalekuan, Anje Duhalde, Tapia eta Leturia Band eta Eskixu.

Gaueko 11etatik aurrera Eskolako Pilotalekuan Su ta Gar eta Def con Dos.

Sarrerak: Beran (Ekaitza-Puy), Lesaka (Arrano eta Atxaspin), Doneztebe (Titi), Leitza (Torrea) eta Iturenen (Herriko Ostaturia).

► **Abuztuaren 12an** larunbata, gaueko 9etan Bittor Aiaperen kontzertua frontoian. 'Arte eta Kultura' ekitaldien barnean.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Uztailaren 24tik 30era** Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► **Uztailaren 31tik abuztuaren 6ra** Lesaka, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► **Abuztuaren 7tik 13ra** Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

DONEZTEBE. Pisua eta bajera salgai. ☎ 635097 arratsetan.

BAZTAN. Borda erosiko nuke. ☎ 306502 (Lurdes).

Baserría erosiko nuke, ez du inporta zein egoeratan, lur eremu ttiki bat baldin bado. ☎ 234830 (Iñigo).

ARANTZA. Pisua salgai. ☎ 943-510564 (Yolanda) edo ☎ 943-527003 (M^a Luisa) Arratsaldeko 8etatik aitzinera.

NARBARTE. Pisu berria amueblatua salgai, garagea negoziagarri. Narbar-teko Herriko Ostatuaren pa-rean dago. ☎ 39 30 44.

IRURITA. Bi etxebizitzako etxea salgai, 108 m² eta 48 m²ko garagearekin. Estrenatzeko. 12.500.000 pezeta negoziagarriak. ☎ 234830-451518.

IGANTZI. Baserría salgai Piedadeko gainaren parean, Lesakarako errepidean. ☎ 450607.

DENETARIK

Pisu bat osatzeko Leioan neska bat behar da. Unibertsitateetik hagitz hur-bil dago eta komunikazio ona du. Pisu berri berria. ☎ 634040 (Nerea Altzuri).

Barañainen abuztutik aurrera pisu bat osatzeko nes-kak behar ditugu. 11.000 pta. eta gastoak. ☎ 181580 (eguerdian edo gauetan).

Igantzin 11.000m²ko lur eremua salgai. Lesakako herritik 2 kilometrotara. ☎ 637453.

Ormigonera-amasadora ia berria, egoera onean da-goena saldu edo alokatu-ko nuke. ☎ 393111 (arra-tsetan).

Moble zaharrak erosiko nituzke. Biltzera pasatuko gara eta eskura ordaintzen dugu. Jardin, baratze, ba-serri eta etxeak ere gar-bitzen ditugu. Prezioaz so-lastuko dugu. ☎ 451518.

Ibilaldiak egiten dira zal-di, pottoka eta ponietan. ☎ 637403.

Lau garrafako **esne-tan-kea** (ardi esnearendako) salgai. Gutu ibilia, berri-be-ria. ☎ 393044.

AZIENDAK

Bi asto ar salgai, 1 eta 4 urtekoak. ☎ 634109 (Arantza).

Zezen gazte bat salgai. Hauta ematen dut, urte bat edo bikoa. Akitaniako Blonda arrazakoa. ☎ 599045 (Pedro Jose, 9eta-tik 1etara eta 2etatik 5eta-

ra).

Ehiza zakurkumeak sal-gai. Sabueso arrazakoak, basurde eta erbi ehizara-ko. ☎ 397031 (Saldias).

Katakume bat oparitzen dugu. ☎ 631055.

LANA

23 urteko neska herriko bestetarako ostatu eta ja-tetxetan lan egiteko prest dago. ☎ 630630. (Eduene).

Irakasle tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase parti-kularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

Neska batek lan eginen lu-ke Baztan-Bidasoaldean. Pertsona arduratsua eta hainbat lanetan esperien-tziaduna. Astelehenetik or-tziralera edo larunbatara. ☎ 592049 (Ana).

Neska euskaldun batek haurrak zaintzen edo et-xeko lanetan lan egingo lu-ke. Esperientziakin. ☎ 637492 (Amaia).

IBILGAILUAK

Citroen AX, NA-AC ma-trikuladuna, salgai. ☎ 510558.

Citroen BX, ongi zaindua eta oso merkea salduko

nuke. ☎ 943-623186.

Suzuki Vitara JLX kotxea salgai. ☎ 510558.

Niva 1.600 motorra salgai, 10.000 kilometro eginak. ☎ 510558.

Golf GTI kotxea, SS-X ma-trikuladuna salgai. Egoera onean dago eta motorra oso ongi. ☎ 943-620010 (gaueko 9etatik 11etara).

Lambreta 200 motoa, SS-P matrikuladuna salgai. Egoera onean, garagean egondakoa. ☎ 943-625401 (gaueko 8etatik 11etara).

AGURRAK

Ainhoa Goñiri zorionak (uztailak 29), Joanes eta Nahia-aren partetik.

Aitziber Iturriari zorionak bere 10. urtebetetzean. Aunitz maite zaitugu. Etxekoak.

Alcala Mecotik mila zo-rion Legasako Iker eta Joanarentzat, zuen urte-betetze egunean, osaba Josuren partetik.

Beran bildu zineten lagun eta abertzale guzoi, es-kerrik asko (falta zirenei ere). Eutsi gogor. Josu. Alcala Meco.

Olabideko M^a Carmen Elizalderi zorionak zure ur-tebetetzean (abuztuaren 2an). Elkarrekin ospatuko

dugu txanpainarekin. Urdazubitik zure lagunak.



Edozein pisu mugitzen dugu Pabilioiak muntatzen ditugu

BULEGOA:

Sebastian de Erratzu, 7 behea • IRUN
Tfnoa: (943) 61 87 24
Tfno Mugikorra: 908 - 77 54 57

GRUAK:

Estación, z/g • IRUN
Tfno Mugikorra: 908 - 67 85 84



HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxa: 592179



Tfno. eta faxa: (948) 45 00 03 • ELGORRIAGA

- Menu bereziak Ezkontza eta banketetarako.
- Eguneko menua astelehenetik ortzirralera 1.000 Pezetetan.
- Asteburuetan menu bereziak 2.500 Pezetetan eta baita karta ere.

Instalazio berri berriak haize egokituarekin

- Jangela 1º solairuan 125 lagunendako kapazitatearekin
- Giro goxoko ostatua beheko solairuan.



**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

Ez galdu denborarik!!



SUKALDEAK

LOGELAK

KOMEDOREAK

GAZTEENDAKOAK

**4 erakusketa
zure esku**

OFERTAK KOLTXOI eta SOMIERRETAN



*... Soberan duguna
ez dezagun lurrera bota!
Festak batzen gaitu,
hondakinek ez gaitzala berezi*

“Justizia, askatasuna eta pakea
Leitzari
eta Euskal Herriari”



Argazkia: Rosa M^a Errandonea

Berako udalak besta onak opa
dizkizue Beratar eta bisitari guziei

